

7. ETA 8. GAIAK

GERRA HOTZAREN BUKAERA ETA MUNDUAREN ERALDAKETA POLITIKO-SOZIALAK

1989-2001

0. SOBIETAR BATASUNAREN ERORKETA ETA ERALDAKETA POLITIKOAK

Testuingurua:

1985. SESBn krisi ekonomiko sakona izan zen.

- Hazkunde industrialia geldituta
- BPG jaisten
- Burokratizazio erraldoia, moteltasuna eta modernizatzen jarraitzeko arazoak
- Komunismoaren berdintasunezko politika soziala arriskuan

Testuinguru honetan Mijail Gorbachov heldu zen Sobietar Batasunaren buru izatera (1985). Berak, SESBn erorpena ekiditeko hainbat erreforma planteatu zituen. Nolabait, SESBk munduan zituen mugak apurtu nahi zituen: AEBekin hitz egin, gerrei uko egin ... modernizazio bat gauzatze aldera. Bi izan ziren erreforma nagusiak:

- **Perestroika** (berregiturakera esan nahi du errusieraz): hainbat sobietar estruktura ekonomiko eraldatzean zetzan, estatuaren zuzendaritza murriztu baina sozialismoa mantenduz. (Enpresari edo lantegietako arduradunei ardura handiagoa eman zitzaien, adibidez, komunismo klasikotik aldentuz).
 - o Halere, neurri honekin ezin izan zuen ekonomia bideratu. Izan ere, SESBn urte gutxian aritu zen Gorbachov. Gainera, oposizio handiarekin egin zuen talka, bereziki alderdi komunismoaren parte ziren hainbat kideren aldetik.
- **Glásnost** (irekiera): AEBk eta mundu kapitalistak SESB eta mundu komunistari egindako kritika askatasun ezean oinarritzen zen. Horri buelta emateko:
 - o Komunikabideen kontrola murriztu
 - o Gobernuaren autokritika prozesua, akatsak aztertu eta konpontzeko
 - o Halere, mugak mantendu egin ziren (burdinezko mugak) .

Helburutzat mundura zabaltzea izan zen, komunismoa mantendu nahian. Ondorioz:

- Komunista klasikoen kritikak jaso zituzten
- Politikari populista eta oportunisten kritikak ere jaso zituzten (Boris Yeltsin)

1988ko hauteskundeetan komunistek irabazi zuten. Ordea, beste hainbat alderdi politiko berri boterera heldu ziren. Horrela, lehen aldiz, zalantzan jarri zen Alderdi Komunistaren nagusitasuna.

- 1991ko abuztuan Boris Yeltsinek bultzatutako estatu kolpe saiakera izan zen. Porrot egin zuen arren , Gorbachovek dimititu egin zuen.
- Hortik aurrera, SESBen erorketa hasi zen.
 - Politikoa: Yeltsinek hauteskundeak garaitu ez zituen arren, politikan barneratu zen eta aurka egin zion Gorbachov-i. Ez zen prozesu demokratiko baten bidez heldu boterera. Gorbachoven dimisioaren osteko hutsunea betetze aldera aldiz. SESBko alderdi komunista desmuntatu zuen.
 - Geografikoki: 15 herrialde berrien sorrera eman zen 4-5 hilabeteren buruan , eta SESB desagertu egin zen (91-92 urteen artean).
 - Ekonomikoa: Yeltsinek, Errusiako Federazio berrian, neoliberalismoa ezarri zuen
 - Prezioen liberalizazioa ezarri
 - Inbertsio, inportazio eta esportazioak liberalizatu zituen

Laburbilduz, estatuaren erregulazioarekin amaitu zen. Merkatu eta kapitalismoaren mendekotasuna agertu zen eta, ondorioz, ezberdintasun sozialak zabaldu egin ziren.



Ekialdeko Europaren eraldaketa:

Berlingo harresiaren erorketa

1989an Alemania oraindik zatituta zegoen. Urte honetan Ekialdeko Europan gauzak gutxinaka aldatzen hasi ziren:

- Austria (Mendebaldeko blokea) eta Hungariak (Ekialdeko blokea) beren mugak zabaldu zituzten
- AED (RDA)ko biztanle askok Hungariara jo zuten, gerora Austriara sartzeko bertatik.
- AERRko gobernuak mugitzeko murrizketak ezarri zituen

- AERko biztanleen manifestaldi handiak izan ziren, mugar artean askatasunez bidaiatu ahal izatea aldarrikatuz

Protesten ondorioz, AERko gobernuak mendebaldeko mugak ireki zituen 1989ko azaroan. Une honetako irudi ikusgarri asko dago, jendea harresiaren goi aldean ikus daiteke mugaren amaiera erakutsiz. Horrela, Mendebaldeko Europa osoan borroka antisobietarrak zabaldu ziren.

1990ko irailean batu egin ziren AED (RDA) eta AEF (RFA)



Balkanen gerrak:

1988.urtean, Yugoslaviako Errepublikak Sozialistak:

- 225.000 km^2 eta 24 milioi biztanle
- 6 errepublika federatu eta bi probintzia autonomo
- Hiru erlijio (islam, kristautasun ortodoxoa eta katolizismoa). Gatazka etniko-erlijiosoak ugariak izan ziren XIX.mendearen zehar.
- 2MGren ostean, Josip Broz Tito patisauen liderrak, Yugoslavia sozialista sortu zuen. Horrela, ekonomia eta industria bultzatu eta herrialde multietniko horretan sentimendu identitario sakona sorrarazi zuen. Titoren lidergoaren inguruan Yugoslavia sortu zen.

Ordea, 1980an Titoren heriotzarekin, zalantzan jarri zen Yugoslaviako sentimendu identitarioa. Horrela, Errepubliketako gobernu autonomoak beren kabuzko politika gehiago burutzen hasi ziren. Horren ondorioz:

- Ezegonkortasun politikoa
- Beherakada ekonomikoa
- Errepubliketan lider nazionalisten agerpena eta tentsio etniko zein erlijiosoen berragerpena
- Mugimendu independentisten indartzea errepublika guztietan

1986.urtean, Slobodan Milosevic heldu zen Yugoslaviako presidente izatera.

- Nazionalista serbiarra zen; horrela, Yugoslavia mantentzeko nahia zuen, baina Serbiaren zuzendaritzapean.

- Testuinguru horretan, garbiketa etnikoa deiturikoa burutu zuen, genozidio ugariaren bidez (bereziki albaniarren kontra jo zuen, Kosovon)
- Bitartean, eta Slobodan Milosevic-en erasoen ondorio lez, beste errepubliketan independentzia prozesuan garatu ziren. Horrela, adibidez, 1990tik aurrera errepublika bakoitzak bere ejertzittoa zeukan.

Gatazka ugari izan zen tarteko.

1. MUNDU BAT, EKONOMIA EREDU BAT: GLOBALIZAZIOA

Homogeneitate politikoaren orokortzeak, Gerra Hotzaren amaieraren ondoren, eredu ekonomiko berri eta mundial baten sorrera bultzatu du: globalizazioarena, alegia.

Globalizazioaren ezaugarriak:

Ezaugarri ekonomikoak:

- Merkatua nagusi (merkatu hori, era berean, munduko potentzien mende dago)
- Merkataritza librea
- Ondasunen mugimendu askea
- Aldaketak lanaren zatiketa eta antolaketan
- Ekonomia kudeatzeko hainbat ente: Nazioarteko Diru Funtza (FMI) eta Banku Mundiala (BM)

Ezaugarri politikoak:

- Ekonomia globalean lider diren herrialdeen nagusigo politikoa
- Estatu nazionalen burujabetza galtzea
- Eskualdeko akordio, merkatu eta paktuen eraketa
- Printzipio demokratikoetan oinarritutako gobernuak

Ezaugarri sozialak:

- Aldaketa sakonak gizartean, komunitateen eta familien egituran
- Nolakotasun kulturalen homogenizazioa: kultur aniztasunaren galera

Ezaugarri zientifiko eta teknologikoak:

- Komunikabide teknologia berriak
- Informazioaren teknologia berriak

2. MENDE BERRI BATEN GIZARTE BAT: SINESMEN KRISIA

Globalizazioaren ondoriozko aurrerakuntza horiek, merkatu homogenizatzailearen mende kokatu ziren. Ondorioz:

- Gizartea gero eta hutsalagoa, kontsumistagoa, konbikziorik eta sustrairik gabekoa
- Gazteria gizarte kultura berriaren ardatza da. Bere funtsezko ezaugarriak honakoan dira:
 - Banakotasuna
 - Atsekabea
 - Populismoa
 - Ikonoklasta, que no respeta los valores, las normas o las formas tradicionales de un grupo o una actividad humana.
 - Iraganetik deskonexioa